

BERTSOLARITZA:

Etxeginak botatako puntuari erantzuten

Bertsolaritzak lau adar nagusi izan ditu Elgoibarko Izarran: bertso-eskola, Gabonetako bertso-jaialdia, udaberriko bertso-jaialdia eta Etxegiña bertsopaper-lehiaketa. Laurak ere Etxegiña zenaren omenez prestatu ziren.

Bertso Eskola:

- 1981ean jarri zuten martxan bertso-eskola Anjel Ugarteburuk eta sasoi hartan Elkarteko presidentea zen Antonio Irigoienek. Hasi, bederatzi-hamar lagunekin hasi ziren, baina bizpahiru urtera 25-30 lagun ere izan zituzten.
- Irakasle lanetan, batez ere, Anjel Ugarteburuk jardun zuen, baina Jabier Arriolak eta Daniel Legorburuk ere laguntzen zioten.
- Bertso eskolaren helburua ez zen bertsolariak ateratzea. Bertso-eskola aitzakia bat zen herri kantak, melodiak, bertso zaharrak, historia eta antzerakoak lantzeko. Eta, batez ere, kaleko umeen euskara aberasteko.
- 1990 urtearen bueltan amaitu zen Bertso Eskolaren lehen etapa. Eta bigarren etapan, berriz, German Meabe bertso-lariak hartuko du bertso-eskolaren ardura.
- Sasoi batean hiru talde ere izan zituen Germanek bere ardurari; ume eta gaztetxoak bi, eta nagusia hirugarrena.
- Bigarren etapa horretan beste bospasei urte iraun zuen bertso-eskolak, eta guztira 50 lagun inguru pasako ziren bertso-eskolatik. Hiru-lau lagun, gainera, bat-batean jarduteko gauza izatera ere iritsi ziren (Irati Agirreazaldegia, Arnaitz Gorriti, Jon Garate *Katalo* eta Kepa Mendikute).

Udaberriko bertso jaialdia:

- Jaialdi hau, 1981ean Etxegiña zenari Herriko Antzokian egin zitzaion omenaldian antolatu zen estreinakoz. Etxegiña bertan zela, Elgoibarko Izarrak omenaldia eskaini zion bertsolaritzaren alde egin zuen guztiagatik.
- Bigarren urtetik aurrera, jaialdia bertso-eskolako umeentzat prestatu zen, urtean zehar ikasitakoa jende aurrean erakusteko aukera izatearren.

Gabonetako bertso-jaialdia:

- Gabonetako bertso-jaialdia 83an antolatu zen estreinakoz. Harrezkero, urtero-urtero antolatu da hutsik egin gabe.
- Jaialdiak beti izan du estimazio polita, eta jende gehien 1994ko jaialdian izan zen: 1.200 lagun.

Etxegiña Bertsopaper-lehiaketa:

- Lehiaketa hau 1982an antolatu zen estreinakoz.
- Txikien maila herrikoentzat bakarrik bazen, nagusienean herrikoek zein erbestekoek parte har zezaketen.
- 1993tik aurrera, Elgoibarko Izarra Idazlehiaketen barruan antolatzen da Etxegiña Bertsopaper lehiaketa.

Bitxikeria moduan, 1985ean herri-mailako bertsolari txapelketa antolatu zuen Elkartek. Bost bertsolarik hartu zuten parte: Urtiak, Ubatxikik, Ziardak, Olazarrek eta Juanito Loiolak. Juanito Loiolak jantzi zuen Elgoibarko bertsolari onenaren txapela.



Etxeğiña zenaren omenez, 1981ean hasi zen Elkarte bertsolaritzari eragiten.



Eta ereindako haziak eman zituen bere fruituak.



Gabonetako bertso-jaialdia ere urtero-urtero antolatu da 1983tik.